BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3205

EBAZPENA, 2012ko ekainaren 29koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Lasarte-Hendaia linearen eraikitze-proiektuak –Loiola-Herrera tartea, Addenda I– erasandako ondasunen eta eskubideen zerrenda onartzekoa, eta titularrei ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko ekitaldirako dei egitekoa.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2008ko apirilaren 24ko Ebazpenaren bidez, behin betiko onartu zen Lasarte-Hendaia linea bikoizteko trazadura-proiektua –Loiola-Herrera tartea–.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2008ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bidez, behin betiko onartu zen Lasarte-Hendaia linea eraikitzeko proiektua –Loiola-Herrera tartea–.

Proiektuaren xedea Loiola-Herrera tartea bikoiztea da Donostia-Errenteria tartean, erabiltzaileari eskuragarriago egiteko, trena 15 minutuko maiztasunez eskainiz, edo gutxiagokoa une jakinetan.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatza eta partzela-planoak biltzen dira Desjabetzeen eranskinean.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2008ko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez, Lasarte-Hendaia linea bikoizteko trazadura-proiektuak –Loiola-Herrera tartea– erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean erakutsi zen.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2008ko irailaren 25eko Ebazpenaren bidez, aipatu proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda onartu zen, eta okupatu aurreko aktak egiteko ekitaldirako deia egin zen –2008ko azaroaren 11n eta 12an izan ziren–.

Okupatzeari dagokionez desjabetze-prozeduraren faseak beteta, proiektua gauzatzeko ardura duen zerbitzuak txostena eman du, eta bertan agerian utzi du zati horretako instalazioen elikatze elektrikoak 1.500 KW indar handiagoko demanda eskatzen duela. Elikatze horretarako, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U konpainiaren banaketa-saretiko elektrizitate-hartunea behar da.

Banaketa-konpainiaren araudiaren arabera, gisa horretako indar-demandetarako, elektrizitatea goi-tentsioan (30 KV) hornitzen da nahitaez. Iberdrolari behar den eskaria egin eta gero, honek erantzun du hartune horretarako eskuragarrien dagoen trazadura dela 200 mm-ko diametroko hiru hodirekin kanalizazioa egitea, sarrerako albo-hegalean dagoen sekzionamendu zentrotik, Loiola eta Herrera arteko tunel berriaren Loiola aldean (Martutene-Egia 3 eta 4 goi-tentsioko airetiko linea).

Trazadura hori partikularren lursailetatik igarotzen denez, aldaketa hauen ondorioz, proiektuak erasandako ondasunen eta eskubideen partzelarioa zuzendu da.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2012ko apirilaren 26ko Ebazpenaren bidez, Lasarte-Hendaia linearen eraikitze-proiektua –Loiola-Herrera tartea, Addenda I– gauzatzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedura hastea erabaki zen, eta Desjabetzeen Eranskinaren zerrenda jendaurrean jarri, interesdunei jakinaraziz eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2012ko ekainaren 8a, 112. zk.), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2012ko ekainaren

11, 110. zk.), Diario Vascon (2012ko ekainaren 8a) eta Donostiako Udaleko iragarki-oholean argitaratuz.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko nahitaezko desjabetze-jardunbideko izapideak egin eta ebazpenak emateko, hala ezartzen baitu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren –azaroaren 30eko 328/2010 Dekretuaren bidez aldatua– 15.h) artikuluak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e artikuluari dagokionean. Dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren bidez bigarren aldiz aldatu zen.

Aplikatzekoa den sektoreko legerian hauek biltzen dira: onura publikoko direla eta ofizialki onartutako trenbide-lineak ezartzeko edo zabaltzeko proiektuetan identifikatutako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharraren aitorpena (Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikulua); Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 56.2 artikuluan aurreikusi prozeduran parte hartzeko Administrazioa ahalduntzeko legezko aitorpena, betiere, okupatu aurreko aktak egin baino lehen –non aipatu ondasunak eta eskubideak deskribatzen, haien titularrak identifikatzen eta baloratzeko datu zehatzak jasotzen diren–, eta okupatu baino lehen eman beharreko gordailu gisa perituak zehaztutako zenbatekoa, eta, hala behar bada, berehala okupatu beharrak eragindako kalteengatiko zenbatekoa ordaindu edo kontsignatu baino lehen.

Ondorioz, jarduketak ikusirik eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 20., 21. eta 52. artikuluetan eta bere erregelamenduaren 56. artikuluan, eta horrekin bat datozen eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakorekin bat,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lasarte-Hendaia linearen eraikitze-proiektuak –Loiola-Herrera tartea, Addenda I– erasandako ondasunen eta eskubideen zerrenda onartzea, eta horiek okupatzeko beharra deklaratzea, Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako.

Bigarrena.– Zerrenda horretan ageri diren jabeei dei egitea, bertan zehaztutako egun eta orduetan, eta Donostiako Udalean pertsonatu eta gero, desjabetu behar diren ondasun eta eskubideak atzeman aurreko aktak egiteko, eta, behar bada, horiek formalki okupatzeko. Guzti horrek ez du eragotziko terrenoetara joatea, interesdunek hala eskatuz gero.

Egintza horretara interesdunek pertsonalki agertu beharko dute, edo haien izenean jarduteko behar bezala baimendutakoek ordezkatuta, eta titulartasuna egiaztatzeko agiriak (eskritura publikoak, Jabetza Erregistroaren ziurtagiriak edo ohar informatiboak, eta abar) eraman beharko dituzte, baita haien eskubideak egiaztatzeko beste ezein agiri ere; hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, aurreko aktak egiteko egunera arte, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte akats posibleak zuzentzeko; alegazioak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Lakua I, Gasteiz).

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da organo honetan edo Garraio eta Herri Lanetako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 29a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JESÚS MARÍA BENAITO VILLAGARCÍA.

Donostiako udalerria

Finka zenbakia: 001.
Katastroko erreferentzia.
Poligonoa: 8.
Partzela: 124.
Jabea: María del Coro eta Hnas Zubillaga Arana.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 264 m².
Izaera: landa-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 10:00.

Finka zenbakia: 002.
Katastroko erreferentzia.
Poligonoa: 8.
Partzela: 123.
Jabea: Lourdes Alkiza Sasiain.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 153 m².
Izaera: landa-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 10:30.

Finka zenbakia: 003.
Katastroko erreferentzia.
Poligonoa: 8.
Partzela: 122.
Jabea: Tomasa eta Santiago Iturbe Zubeldia.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 69 m².
Izaera: landa-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 11:00.

Finka zenbakia: 004.
Katastroko erreferentzia.
Poligonoa: 8.
Partzela: 118.
Jabea: Rafael Valencia Alvarez.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 50 m².
Izaera: landa-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 11:30.
Finka zenbakia: 005.
Katastroko erreferentzia.
Poligonoa: 8.
Partzela: 121.
Jabea: José Roque Azpiazu Jauregui.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 6 m².
Izaera: landa-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 12:00.

Finka zenbakia: 006.
Katastroko erreferentzia.
Poligonoa: 8.
Partzela: 116.
Jabea: José Roque Azpiazu Jauregui.
Okupazio iraunkorra: 15 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 203 m².
Izaera: landa-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 12:00.

Finka zenbakia: 007.
Katastroko erreferentzia. 8496040.
Jabea: Lourdes Alkiza Sasiain.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².

Zortasuna: 36 m².
Izaera: hiri-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 10:30.

Finka zenbakia: 008.
Katastroko erreferentzia. herri barruko bidea.
Jabea: Donostiako Udala.
Okupazio iraunkorra: 0 m².
Aldi baterako okupazioa: 0 m².
Zortasuna: 447 m².
Izaera: hiri-lurra.
Aurreko aktak egitea: uztaila.
Lekua: Donostiako Udala Eguna: 27, ordua: 12:30.